

# Ilunpeetan barrena

Aritz Galarraga

"Zazpi urkatuak"  
Leonid N. Andreiev  
euskaratzailea: Jose Morales  
Alberdania / Elkar, 2006

Leonid Nikolaievitx Andreieven *Zazpi urkatuak* ipuin liburuarekin, eta kontuak ongi egin baditut behintzat, hamar dira dagoeneko Literatura Unibertsala bildumaren baitan euskaratutako idazle errusiarrak: Chejov, Tolstoi, Dostoievski, Gorki, Lermontov, Pushkin, Gogol, Turgenev, Bulgakov eta, orain, Andreiev. Izen horiek guztiak, XIX. mendean eta XX.aren hasieran errusieraz egindako lanek literaturaren historian duten pisu eta eraginaren erakusgarri dira. Irakurgai dugun Andreieven lanak, egia da, ez du harreman handirik izen horietako zenbaitzuekin. Baina irakurleari pista batzuk ematearren esan behar da, esaterako, Gorkik bere lana goraiatu eta babestu egin zuela edota gainera, Chejoven jarraitzailetzat ere hartua dela.

Joxe Moralesek prestatutako liburu honetan Andreieven hiru ipuin biltzen dira, itzultzaileak aitzin-solasean aitortzen duenez, errusiarraren "lanik onenetako batzuk": liburuari izenburua ematen dion 'Zazpi urkatuak', 'Ilunpeak' eta 'Espektroak' hain zuzen. Hirurak ere ipuin nahikoa ezberdinak dira, baina hirurek ere ezaugarri komun ugari dituzte. Gaiari dagokionez, esaterako: heriotza, beldurra, zorotasuna, bakardadea edota ongia/gaizkia dikotomia behin eta berriro errepikatzen dira. Horrekin batera, narrazio guztiek tonu ezkor eta pesimista hartzen dute, desesperantzaren kronikak bailiran.

Liburua irekitzen duen narrazioa luzea da, 100 bat orrialdekoa, landua eta liburu honen, niretzat, gauzarik aipagarriena. Bertan, hiltzera kondenaturik dauden zazpi lagun azken orduen kontaketa egiten zaigu. Urkagaiak, ministro bat hiltzeko atentatua prestatzen ari ziren bost ekintzaile eta bi gaizkile dira, Ivan nekazari estoniarra eta hiru pertsona hiltzeaz akusatutako Tsiganok. Ipuinean narrazioaileak mehe-mehe azaltzen du zazpi lagunok zer egin duten urkamendia merezi izateko, beren iraganeko zertzelada batzuekin batera. Baina idazleari interesatzen zaiona gehiago da heriotzaren atarian dauden pertsonaien barne erradiografia egitea. Eta horretarako, pertsonaia bakoitza hartu eta bere gogo-aldartearen gorabehera guztiak, xehetasun handiz, deskribatzen ditu. Idazleak lortzen du, enpatia ariketa horretan, heriotzaren atarian dagoenaren larruazalean sartzea eta, bide batez, irakurlea sarraraztea.

'Ilunpeak' izeneko bigarren ipuinean, ekintzaile bat prostituzio-etxe batean ezkutatzen da, polizia atzetik duelako. Heriotzara eramango duen ekintza burutzeko ordu gutxi batzuk falta zaizkio, baina ezagutuko duen prostitutak eta berekin emango dituen orduak kolokan jarriko dizkiote ordura arteko konbikzio eta sinesmen guztiak: "bakarrik daki aurrez aurre daukala bere bizitza eta arima den hori guztia".

'Espektroak' kontakizunean, azkenik, eroetxe bateko eguneroko arruntean kokatzen da istorioa. Eta hasiera batean, ipuinean ezer gutxi gertatzen dela ematen badu ere, eromenaren gaineko hausnarketa izateaz gainera, gizakiaren ilunpeetara eginiko bidaia ere bada.

Testuen bigarren mailako irakurketa batean, hainbat posizionamendu politiko ere igar daitezke, hala nola, heriotza-zigorraren aurkakoa edota iraultza-ekintzaileen aldekoa (eta, ondorioz, Tsarismoaren kontrakoa). Horrek kontraesanean sartzen ditu ipuinok, Andreieven narrazioaileak ikusle huts eta neutroak baitira liburu osoan zehar. Laburbilduz, esan daiteke Andreieven ipuinok gizakiaren alderik ezkutuenak, gizakiaren ilunpeak, bisitatzeke aukera eskaintzen dutela. Baita, horretaz gain, literatura egiteko modu baten nahiz garai historiko jakin baten testigantza ere.